



Andoaingo Udala

ALZHEIMERRAREN MUNDUKO EGUNA DELA ETA, ANDOAINGO UDALAK ADOSTU DUEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Irailaren 21ean ez da egun bat gehiago, ezta ahazteko egun bat ere. Alzheimerren Munduko Eguna da, eta Andoaingo Udaleko talde politikoek, inoiz baino gehiago, gaixotasun hori pairatzen duten pertsonak eta haien familiak gogorarazi nahi dituzte. Baina, era berean, Andoaingo herritar guztiei, gaixotasunaren inguruan sentsibilizatzeko eta gure kanpainaren leloa bere egiteko, "Zaintzen bazara, Alzheimerrek atzera pauso bat egiten du".

Kalkuluen arabera, 25 milioi pertsonak pairatzen dute gaixotasun hau munduan. Gipuzkoan, gaur egun, 12.000 pertsonari eragiten die gaixotasunak eta 36.000 senitartekoei.

Alzheimerre zahartzeari lotutako gaixotasuna ez bada ere, dementziaren maiztasuna bost urtetik behin bikoiztu egiten da, 65 urtetik aurrera eta 80 urtetik gorako pertsonen kopurua eta biztanleriaren zahartzea kontuan hartuta, gaixoen kopurua 2050ean hirukoiztea aurreikusten da. Hori horrela izanik, zalantzarik gabe, orainaldian eta etorkizunari begira osasun publikoaren erronka garrantzitsuenetako baten aurrean gaude.

Bestalde, kontuan izan behar da Alzheimerrek ez diola pazienteari bakarrik eragiten, zaintzaileetan eta familia-ingurunean ere egiten du. Horregatik, garrantzitsua da, Alzheimerren erabateko abordatze egokia bermatzeko behar den kontzientzia aldarrikatzea.

Hau dela eta, Andoaingo Udalak:

1.-Gaixotasun horrekiko kezka adierazi nahi dugu eta aurten beste urrats bat eman nahi dugu

herritar andoaindarrak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko, lehen mailako arazo sozio-sanitario honen inguruan. Horretarako, Alzheimerren aurkako Borrokaren Munduko Egunaren inguruan antolatutako jardunaldiak antolatu ditugu Bertxin eta Santa Krutz jubilatuen elkarteekin batera, "Zaintzen bazara, Alzheimerrek atzera pauso bat egiten du" lelopean.

2.- Osakidetzak egiten duen lana azpimarratu nahi dugu eta horretarako beste erakundeekin elkarlanean bitarteko gehiago eskuratu daitezkeela uste dugu, aurtego apirilean, lehenengo Alzheimer Plan Nazionalak laguntza emango duelakoan gaude, gaixotasunaren diagnostikoa hobetzeko, bai eta kaltetutako pertsonen eta horien senitartekoei arreta emateko ere.

3.- Konpromisoa hartzen dugu, bere eskumenen eta aurrekontu-aukeren arabera, gaixo dauden pertsonak eta haien familiak eta zaintzaileak zaindu, babestu, artatu eta sentsibilizatzeko.

4.- Irailaren 17an eta 24an Alzheimerren inguruan antolatutako jardunaldietan parte hartzera gonbidatzen ditugu Andoaingo herritarrek.

Andoain, 2019ko irailaren 13an

PSE-EE

EAJ-PNV

EH-BILDU

ELKARREKIN PODEMOS